

STEILASEK ETA GAIONTZEKO SINDIKATUEK MAIATZAREN 15 ETA 16KO GREBA DEILDIA ERREGISTRATU DU

Gur, maiatzaren 3an STEILASEk eta sektoreko beste sindikatuek **maiatzaren 15 eta 16ko greba deialdiaren erregistro ofiziala egin dute** Lan Sailak Bizkaian duen Ordezkaritzan. 10.000 inguru langile -irakasle eta ez irakasle- daude deituta deialdi honetan parte hartzera, Euskadiko Autonomi Erkidegoko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen Hitzarmenaren esparrukoak.

Martxoaren 20an sektoreko langileok oso modu zabalean babestu genuen STEILASEk eta sektoreko beste sindikatu guztiek egindako greba deialdia. Bilbon, Donostian eta Gasteizen izandako manifestazio jendetsuak sektorea ia-ia guztiz gelditu zelaren frogarik argiena dira, %70tik gorako jarraipenarekin.

Egun hartan ondo agerian geratu zen premiazkoa zela negoziazioak edukiz betetzea, eta gure eguneroko lanerako eta gure lan-baldintzetarako behar-beharrezkoak diren alderdiak adostea: ordu osagarriak, kidegorik prekarioenak artatzea (hezkuntzagaruntzako espezialistak eta haur-hezkuntzako lehen zikloko langileak), enpleguari eusteko plan baten beharra, eta galdutako eroste-ahalmena arian-arian berreskuratzea.

Aldarrikapenak argiak izan arren patronalen aldetik ez dute erantzunik izan; beraien ardurak saihesten eta informazio toxikoa zabaltzen jarraitzea nahiago izan dute.

Patronalaren proposamen ezaren aurrean mobilizazioak indartu behar izan ditugu, bi greba-egun gehiagorekin. Maiatzaren 15a eta 16a izango dira, joan den osteguneari izandako prentsaurrekoan adierazi genuen bezala.

STEILASen ustez, martxoaren 20an gertatu zen bezala, sektoreko langileek erantzun irmoa ematen jakingo dute, mobilizazioei babes zabala emanez. Ondo ulertu dute negoziatioari begira urratsak ematera bultzatu behar direla Patronalak, benetako negoziatio aktibatzeko beharrezko edukinak jar ditzaten helburuarekin.


Benetako negoziatioaren alde,
LAN HITZARMEN BERRIA ORAIN!

GREBA MAIATZAK 15 **GREBA MAIATZAK 16**

GIZARTE EKIMENEN IKASTETXEAK
BORROKAN!

MANIFESTAZIOA	MANIFESTAZIOAK
Maiatzak 15 11:30ean BILBO Sagrado Corazon	Maiatzak 16 11:30ean BILBO, ESCOLAPIOS (Gasteiz, Nafarroa) GASTEIZ, SAN VIATOR IKASTETXETIK DONOSTIA, BULEBARRETIK

ELA • STEILAS • CCOO • LAB • UGT



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus